

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide, buru, Lekuona, Mitxelena, Villasanté, Gorostiaga, Arrue, Irigarai euskaltzaiñak. Aita Larrañaga Pingliang-go apezpikua, Alvarez Emparanza, San Martin, Etxaniz, Mugica ta Irigoyen urgazleak.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aita Mugica-k egiten ari dan iztegi az lan luze bat irakurri dau, eta itaun batzuk egin ditu garbian iminterakoan eretxi finkatu bategaz ekiteko. Itaunak egin ala batzartuak barriketa oso jakingarriak izan dituez, batez be idazteko moduz. Beste izkuntzetatik datozen berbetan batzuk uste dabe arrunta danean esaten dan moduan idatzi bear dala, baiña kultura-bidez datorrenean jatorrizko itxura begietatik sartzen dana galdu barik aal dan neurrian.

Atsegiñez beterik ikusi da Aita Mugica-ren jarduna eta egiten ari dan lan bikaiña.

Aita Mugica-k eskatzen dau ia Azkue egiten ari zan iztegia eta Euskaltzaindiaren etxean dagoena ikusi leien. Ikusi begi.

Azkue-ren iztegi barritu ta osotuaren lanetarako diru-eskabideak egin bearra dago aurrera jarraitu gura bada. Datorren illerako ekarri bedi erabagi-bideren bat.

Eibarko batzarren gaiñean berba egin da. Baimena lortuta dago guztirako. Gipuzkoako bertsolarien txapelketa nagusirako Diputazioak makilla bat emon dau lenengo urtetan dauenarentzat. Gipuzkoako Ahorro-Kaxeak iru milla peseta eta kopa bat. Eibarko Ayuntamentuak bi milla peseta. Club Deportivo Eibarkoak bost sari bosteun pesetako.

Irigoyen-ek diño zelan Bizkaiko Ahorro-kaxeak zortzi milla peseta eskeiñi dituen datorren urteko Domingo Agirre novela-sarirako ahorroaren eguna dala-ta. Sariketearen oiñarriak aurrekoaren modukoak izan beitez, sari bakar eta zatitu ezin bat iminirik.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.